



Prentsa oharra

Liderra da tokiko elikagaiak merkaturatzen

**EROSKI-K HITZARMEN BAT EGIN DU HOGEI EUSKAL
ERLEZAINEKIN, EUSKOLABEL EZTI ZIURTAGIRIDUNA
SELEQTIA MARKAREKIN SALTZEKO**

- EROSKI SeleQtia-aren ezti berriak Eztiona izena hartuko du, eta Euskolabel ziurtagiria izango du. Proiektu hau hiru taldek hitzartu dute, Eztiko erlezain profesionalen elkarteak, Giez-Berri sozietate ontziratzaileak eta EROSKIk
- Elikagai natural-naturala da; abarasketatik zentifrugatuta ateratzen dute, eta beste inolako prozesurik gabe ontziratzen. Era horretara, bere ezaugarri organoleptiko eta nutrizio osagarri guztiak gordetzen ditu eztiak
- 2016an EROSKIk berak merkaturatu zuen Eusko Label zigilua duen ezti ekoizpenaren %30

Elorrio, 2017ko martxoaren 20a.- [EROSKI](#) lore anitzeko ezti berria saltzen hasi da, "SeleQtia" gourmet produktuen markarekin; Euskal Autonomia Erkidegoko erlauntzetatik biltzen da ezti hori, eta *Eusko Label ziurtagiria du*. Horretarako, hitzarmena egin dute EROSKI kooperatibak eta EAEko hogeitaz erlezainek, zeinak Eztiko profesionalen elkartearekin eta Giez-Berri sozietate ontziratzailearekin bilduta baitaude.

"EROSKIk alternatiba berriak eskaintzen dizkio kontsumitzaileari, elikadura osasungarria eta iraunkorra eraman dezan. Ezagutuak gara liderrak garelako tokiko produktuen salmentan", esan du EROSKIren Tokiko Produktuetarako zuzendari komertzialak, Asun Bastidak. *"Hain zuzen, merkaturatze berri onekin, kontsumitzaileari eskura jarriko diogu janari natural-natural bat; gainera, hura kontsumituta, laguntzen ariko gara gure ingurumenari eta gure paisaien kalitateari"*.

EROSKI SeleQtia-Eztiona markako ezti hau ekoizteko, zorrotz bete dira Eusko Label ziurtagiriak eskatzen dituen ekoizpen eta ontziratze baldintza guztiak, hasi erlauntzen kokapen eta identifikaziotik eta segi azken produktuaren etiketatzeraino, betiere egoki zainduta erlezaintzako manera onak eta ezti erazteko eta ontziratzeko era.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



Gainera, EROSKI SeleQtia-Eztiona marka berriari balorazio ona eman diote dastatzeetan adituak diren profesionalak, eta Basque Culinary Centerren bermea du. Zientzia Gastronomikoen Fakultate horretan egindako dastatzeetan, zenbait ezaugarri jasotzen dituzte chefek, hala nola itxura, testura, zaporea eta urrina.

EROSKI SeleQtia-Eztiona markako ezti berri honek Eusko Label ziurtagiria du, eta Eztiko profesionalen elkarteko erlauntzetatik dator, zeinak hogeitau euskal erlezain biltzen baititu. Giez Berri elkarte ontziratzaillearen laguntza du kooperatiba horrek, eta bakarra da, Eusko Label ezti ziurtagiriduna ontzira dezakeena.

"Eusko Labela duen EROSKI SeleQtia-Eztionaren lore anitzeko ezti berri hau abarasketatik erauzteko, ohiko prozesua erabiltzen da, hau da, zentrifugatzea, eta bere hartan ontziratzen da, pasteurizatu eta berotu gabe eta polena igarotzeko modua ematen duten iragazkietatik iragazita. Horrela, nutrizio osagaiak bere horretan gordetzen ditu, eta testura krematsuak eta aparteko aroma eta zaporeak izaera berezia ematen diote", esan du Eztiko profesionalen elkarteko presidentek, Alfredo Garcia Llarenak.

EuskoLabel eztiaren salmenta igo egin da EROSKI ren dendetan

EROSKIk nabarmenki gehiago merkaturatu zuen iaz Eusko Label ezti ziurtagiridunetik, 13.000 kilotik gora bai. Urte horretako Eusko Label ezti ekoizpen osoaren %30 baino gehiago da kopuru hori.

EROSKI SELEQTIAri buruz

EROSKI SeleQtia kalitate goreneko elikagai sorta zabala biltzen du; sorta horretako produktuek, aroma eta zapore ezaugarri apartak dituzte, eta, gainera, oso itxura dotorea dute. Kooperatibak "gourmet" marka horretan dituen produktuen artean, gaur egun, 170 produktu daude, eta horietatik 27k Jatorri Izenak eta Adierazpen Geografiko Babestuak dituzte. Eskualde askotakoak dira, hala nola Euskal Autonomia Erkidegokoak, Nafarroakoak, Kataluniakoak, Andaluziakoak, Gaztela Mantxakoak, Alacantekoak eta Italiako Modenakoak eta Grana Padanokoak.

EROSKIren marka propioko gainerako produktuek bezala, ez dute transgenikorik, ez kontserbagarri eta koloragarri artifizialik, ez landare-gantz partzialki hidrogenaturik, eta ontziaren aurrealdean semaforo nutrizionala dakarte, hots, nutrizio kalitatearen arloan dagoen etiketarik aurreratuen eta kontsumitzailearenganako gardenena.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)